

# B

BARREN

TOKIKOM



# Festarako egunak



# OSASUN GIDA

## OPTIKAK

65107

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00  
San Bartolome, 10  
Elgoibar  
Tel: 943 743 734

183112  
UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21  
Elgoibar  
Tel: 943 740 359

## HORTZ KLINIKAK

171112

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
lekueder@infomed.es

## GINEKOLOGIA

82115

M<sup>o</sup> JOSE RUIZ DE PORRES  
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrapzepzio

Toribio Etxebarria, 4-1.ezk.  
Eibar  
Tel.: 943 202 857



## FISIOTERAPIA

271112 AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 531 953  
Tel.: 669 565 745

177112 fisio&más

### Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).
- Mesoterapia homeopatikoa: + Traumatologia.
- + Estetika (zelulitisa, estriak)

### Osasunerako ariketa agindua

(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

### Entrenamendu gidatua

Pilates makinak (errehabilitazioa) 3 pertsona gehien.

### Txirindulariaren biomekanika

(kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.  
Tel.: 943 740 191 - 667 953 628

## OTORRINOLARINGOLOGIA

183112  
UZURI

- Entzumen protesia **BERRIA!**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21  
Elgoibar - Tel: 943 740 359



Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
Webgunea: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikizunik.

**KOORDINATZAILEAK** Ainhoa Andonegi  
**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia  
**HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia  
**PUBLIZITATEA** Leire Rubio  
**MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz  
**ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika  
**ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro  
**KOLABORATZAILEAK** Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larranaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Inma Mugertza, Ander Izagirre  
**INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale  
**LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## ARGITARATZAILEA:



## LAGUNTZAILEAK:



elgoibar  
biZi-biZiXal



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### Kontuak argitzen

Aurreko astean **BARREN.EUS**-en agertutako albistean EAJ alderdiak udal hauteskundeetarako gaztetxearen inguruan egindako proposamenari dagokionez Elgoibarko Gazte Asanbladak honako puntuak argitu nahi ditu:

1. Hasteko, albisteak aurkakoa ulertarazi baitezake ere, berretsi nahi dugu Elgoibarko Gaztetxea eta Gazte Asanblada gazte guztiei irekita dauden espazioak izan direla, direla eta izango direla.

2. Gaztetxeari buruz aipatutako asmo eta inbertsio orori dagokionez, argi utzi nahi dugu halako erabaki oro beti herriko Gazte Asanbladak hartuko duela, eta ez inongo alderdi politikok.

3. Bukatzeko, ez dugu onartuko inongo alderdi politikok Gaztetxearen eta Gazte Asanbladaren erabilera partidistatik egitea, are gutxiago hauteskundeetarako hiru egun falta direnean. Esan behar dugu azken hilabeteetan elkarrizketetan jardun dutela Gazte Asanbladak eta Elgoibarko Udalak, bi aldeek borondate zintoz; baina blokeo egoera batera iritsi eta hauteskundeen hurbiltasuna ikusita hurrengo udal gobernuarekin negoziatzen jarraitzea erabaki genuen. Amorrututa gaude, azkenean zoritxarrez gure beldurrak bete direlako eta argi geratu delako interes elektoralak zeudela akordioa lortu nahiaren atzean.

Oztopo guztien gainetik lanean jarraituko dugu Elgoibarko gazte alternatiba eraikitzen!

**Elgoibarko Gazte Asanblada** ☞

### Adierazpen askatasuna Elgoibarren

Etxeberria alkate agintzailea etorri zen bezala joan zen, iritzi ezberdineko kartelak kentzen. Duda txikia geneukan: ausnarketa-egunean gure adierazpen askatasuna errespetatuko zuen ala ez. Tentelak gu. Demokrata handi horrek egun seinatu horretan ere ez zuen begirunea erakutsi. Larunbat goizean bere gustuko ez ziren mezuak kendu eta kale-paretak isilarazi zituen. Bi lanordu eta 30 euro izorratu zizkigun.

Ohitura hartuta badu ere, horrek ez du esan nahi ideiak hedatzearen kontrako eraso ez denik. Pepe Mugika, Uruguaiako lehendakari ohiak esan zuen: "Botereak ez ditu pertsonak aldatzen, egiazki direnak agerrarazi baizik".

Gehiengo absolutua dela-eta, besaulki garestiaren ondorengo izango den Ane Beitiari guztion adierazpen askatasuna errespetatu dezala

eta elgoibartarron osasuna eta ingurumena babesteko *fracking*-aren aurkako konpromisoa har dezala eskatzen diogu, berriro ere.

Etxeberriari, haize ona eta txalupa berria.

**Fracking ez** ☞

### Koldarrak

Hala deitzen diet nik joan zen ostiralean mendarotar talde baten izenean argitaratutako panfletoan ni iraindu eta nire izena zikindu nahi izan dutenei. Paper batek eta sinadura generiko batek ematen duten anonimotasuna erabiltzen duzue gezurrak esanez nire aurka egiteko. Horren ondo ezagutzen nauzuela ikusita, pentsatzen dut jakingo duzuela non aurkitu nazakezuen eta beraz, adorerik baldin baduzue, eskertuko nizuke paper horretan esaten dituzuenak aurrez aurre esatea. Bien bitartean, koldar hutsak izango zarete niretzat.

**Borja Rodriguez Barreras** ☞

### Jaietarako batzar irekia

Urtero bezala hurbiltzen ari dira Elgoibarko jaiak, eta Maalako Jai Batzordean ere heldu diogu lanari. Autogestioa eta elkarlana oinarri, jai eredu partehartzailean sakontzea dugu helburu aurten ere. Herri-bazkaria, kontzertuak, elektrotxaranga, Txiki Eguneko erromeria... izan dira azken urteetan protagonista, eta jendez eta jai-giroz bete izan dugu Maalako Txosnagunea. Aurten ere iritsi zaigu momentua jai-forma ematen hasteko, eta gogotsu gaude.

Illo horretan, beste behin ere jaiak denon artean antolatzeko ahalegin berezia egin eta guztion ekarpen eta ideiak jasotzeko batzar irekia antolatu dugu. Datorren ostegunean, ekainaren 4an, Kultur Etxeko sotoan elkartuko gara 19:00etan, programaketarako proposamenak bildu eta jai-forma pixkanaka ematen joateko. [Malakojaiibatzordea@gmail.com](mailto:Malakojaiibatzordea@gmail.com) helbidera ere bidali daitezke proposamenak bilerara bertaratu ezinez gero. Gure ateak zabal-zabalik daude! Hurbildu eta osa ditzagun denon artean jai mundialak.

**Maalako Jai Batzordea** ☞

*Apirilean...*

## JAIOTAKOAK



**Izaro Idueta Lorenzo**  
Apirilak 1  
Aitor eta Patricia



**Oier Elizburu Compañon**  
Apirilak 12  
Igor eta Ihart

**Alma Rescalvo Garcia**  
Apirilak 10  
Sergio eta Yesica

**Xabier Etxegoen Rodriguez**  
Apirilak 10  
Zelmar eta Deysi Alexandra

**Sara Antonela Quevedo Chillogallo**  
Apirilak 20  
Olmer eta Nancy

**Lucia Muniozguren Epelde**  
Apirilak 23  
Mikel eta Idoia

**Julen Blanquez Martins**  
Apirilak 29  
Felipe eta Maria Iratxe

## HILDAKOAK

Rosendo Fernandez de Campiñon Buxeda • 84 urte • Apirilak 6  
Elo Del Valle Callejo • 83 urte • Apirilak 6  
Ramon Zubiaurre Izagirre • 65 urte • Apirilak 9  
Antxon Larreategi Arenaza • 86 urte • Apirilak 15  
Maria Beristain Egaña • 83 urte • Apirilak 16  
Andres Ibartuzea Bereziartua • 83 urte • Apirilak 22  
Maria Josefa Lizundia Zabaleta • 82 urte • Apirilak 25  
Agapita Mauleon Martinez • 92 urte • Apirilak 28

## EZKONDUTAKOAK

• Aitor Garate Aranberri eta Nerea Osoro Ubera Apirilak 7

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe  
zentruetan  
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA

## VICENTE MUGUERZA SAN MARTIN



*Behar dudanetan ezin naiz babestu zure besoetan,  
baina badakit hor zaudela ezkutatuta nire bihotzean.  
Zure irribarrea gogoan, ezin ahaztu eta ezin ikutu.  
Zergatik ez zauden nirekin, ezin dut jasan, ezin dut ulertu.*

Sendia eta anai-arrebak

2015eko maiatzaren 17an hil zen. Haren oroimenez meza egingo da, domekan, maiatzak 31, goizeko 11:30ean Mendaroko Trinitate elizan. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu.





**Kiroldegi aurreko parkean txakurrekin ibiltzea debekatuta dago:** "Kiroldegi aurreko parkean berdegune txiki bat dago eta auzoko jende askok txakurrak hara eramaten ditu euren zeregina egitera, baina kartel batek argi adierazten du ingurune horretan txakurrekin ibiltzea debekatuta dagoela. Beraz, jendea eskatu nahi nioke arauak errespetatzea. Horrez gain, parke horretan ume asko ibiltzen da jolasean, eta bero egiten duen egunetan, denek ura eskatzen dute San Roke tabernan. Eskertuko genuke iturri bat jartzea. Mila esker".



**Maalako ziburuak koipez zikinduta egoten dira:** "Maalako haur parkean dauden ziburu kateak koipez zikinduta egoten dira, eta hauren eskuak eta arropen mangak beltz-beltzak jartzen dira ziburu horiek erabiltzen dituzten bakoitzean. Neurriren bat hartu beharko litzateke, koipe hori garbitzea oso zaila izaten delako".



**Txalo bero bat CD Elgoibar-ko Ohorezko Jubenilen entrenatzaileei:** "Gurasoek eta jokalariek eskerrak eman nahi dizkiegu CD Elgoibarko Jubenil taldeko entrenatzaileei. Ibon Lopez eta Juanan Aizpitarte txalotu nahi ditugu, denboraldian zehar egin duten lanagatik. Zorionak, eta eskerrik asko".



**Zorionak eta eskerrik asko Morkaikoren Eguna antolatzen ibili ziren guztiei.** "Txalo zaparrada beraiantzat. Eguna zoragarria pasatzeko aukera eman ziguten itzulian eta itzultxoan parte hartu genuen guztioi. Antolaketa bikaina izan zen, eguraldia ere portatu zen, eta umeak ere pozik ibili ziren beraien dominak soinean jantzita. Mendizaletasuna irabazle!! Milesker guztioi.".

Zuen kezak, galderak edo txalotxoak bidaltzeko:  
barren@elgoibarkolizarra.eus 943 744 112

CLINICA DENTAL

**ELIZPE**

HORTZ KLINIKA

☎ 943 752 567

ORDUTEGIA:  
Astehelenetik ostiralera  
10:00-13:00 / 16:00-20:00  
e-mail: elizpe3@gmail.com



- ☉ AURREKONTUAK ETA ERRADIOGRAFIA DIAGNOSTIKOAK DOAN
- ☉ FINANTZATZEKO AUKERA
- ☉ UNIVERSALUD ASEGIAREN BARNE.

- ☉ ODONTOLOGIA OROKORRA
- ☉ ORTODONTZIA
- ☉ UMEEN TRATAMENDUA (P.A.D.I.)
- ☉ ERREABILITAZIOAK INPLANTEEKIN
- ☉ ERREABILITAZIOAK ZERAMIKAREKIN

## Debegesak informazio bilerak hasiko ditu herrietan, energia aurrezteko aholkuak eman eta fakturak ulertzen laguntzeko

Astelehenean etorriko dira Mendarora, eta ekainaren 10ean eta 11n Elgoibarrera

**E**nergia eraginkortasuna sustatzeko programa abiatu du Debegesa garapen agentziak, eta horren barruan hainbat informazio bilera antolatu ditu Debabarreneko herrietan, besteak beste herritarrei energia fakturak ulertzen laguntzeko eta energia aurrezteko aholkuak emateko. Ekimen hau Debegesaren *Bultzatuz* egitasmoaren barruan sartzen da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo Sailak eta *Gipuzkoa Ekintzailea* ekimenak babestu dute diruz.

Gizarte eragileak eta herritarrek gai honen inguruan sentsibilizatzea da programa honen helburu nagusia. Berez, martxan da dagoeneko Debabarreneko janari-dendetan, eta maiatzaren 18az geroztik Debe-

gesako teknikariak saltokiak bisitatzen ari dira. Guztira, 23 janari-dendak parte hartu dute ekimen honetan, eta bisitetan, energia azterketak egiten dituzte teknikariek eta energia aurrezteko jarraibideak eman. Orain, baina, herritarrei eta enpresa industrialei zabalduko diete egitasmoa, eta horren barruan informazio bilerak egingo dituzte herrietan. Astelehenean, ekainaren 1ean, egingo dute bilera horietako aurrena, Mendaron. Bi saio izango dira: goizez, 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldez, 15:30etik 20:00etara. Elgoibarren, berriz, ekainaren 10ean eta 11n egingo dituzte bilerak, Herritarren Arreta Bulegoan. Hilaren 10ean, 8:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egingo da, eta hilaren 11n, 8:30etik 14:00etara.

## Espiometriak egin zituzten atzo, Tabakorik Gabeko Egunaren harira

Tabako kerik gabeko nazioarteko eguna da domekan, eta aitzaki hori baliatuta, tabakoa kontsumitzeak eragiten duen kalteaz ohartaraztera irten ziren atzo kalera Elgoibarko anbulategiko profesionalak. Karpa jarri zuten Merkatu Plaza ondoan, eta espiometriak egin zizkieten bertaratutako guztiei. Era berean, erretze-ari uzteko informazioa ere banatu zuten. Bestalde, aste honetan *Kerik gabeko gelak* lehiaketan parte hartu duten ikasleei lehiaketako irudi irabazlearekin egindako kamisetak eta diplomak banatuko dizkiete. Elgoibarren, Ikastolako DBH2ko bi geletako ikasle zenbaitek hartu dute parte. Mekan, berriz, tabakoaren inguruko informazio puntua jarri zuten maiatzaren 12an osasun zentrok langileek eta herriko DBHko irakasle guztiek kerik gabeko gelak programaren inguruko formazioa jaso zuten han, gero euren ikasleekin batera martxan jarri ahal izateko.



## Ohiko lapurretak saihesteko argibideak emango ditu Ertzaintzak

Gure bueltan izan ohi diren lapurreta ohikoenak zeintzuk izaten diren azaldu eta horiek saihesteko argibideak emango ditu Ertzaintzak ekainaren 17an Elgoibarren (hasieran ekainaren 4rako programatu zuten). Jubilatuen Egoitzan izango da hitzaldia, 17:00etatik aurrera. Berez, nagusiei zuzendutako hitzaldia dela aurreratu dute, baina interes orokorreko gaia izanda, edonork parte hartu dezake. Hitzaldia gaztelaniaz izango da.



**SAN ROKE KALEA, 20**  
**TEL: 943 744 457**  
**ELGOIBAR**  
[www.colchonerialagunak.com](http://www.colchonerialagunak.com)

**Orain bai ez duzula  
koltxoiz ez aldatzeko aitzakiarik!**  
**Lagunak Koltxoi-dendan aurkituko duzu zurea,  
hilean 9,50 eurogatik**








## Euskal Eskola Publikoa **Harrera Lehendakaritzan**



Euskal Eskola Publikoaren jaiaren harira, EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko ordezkariak bati harrera egin zieten eguaztenean Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakariak eta Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza, Politika eta Kulturarako sailburuak Lehendakaritzan. Ezkerretik eskuinera, Miren Lourdez EHIGEko koordinatzailea, Cristina Uriarte sailburua, Noemi Otegi Elgoibarko Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteko ordezkaria, Iñigo Urkullu lehendakaria, Carlos Lopez EHIGEko presidentea eta Arrate Iriondo Herri Eskolako irakaslea.

## **Jaiak** Ikastolaren eguna

Ekainaren 6an ospatuko dute Elgoibarren Ikastolaren Eguna, *Bizia delako!* lelopean. Ikasturteari amaiera emateko ere baliatuko dute jai-giroko egun hau. Goizean, Kalegoen plazatik ikastolara kalejira egingo dute, eta ikastolan, askotariko ekintzak egingo dituzte gero: haurrentzako puzgarriak eta jolasak, herri kirolak, Niala magoa, Biraka dantza taldearen flashmob-a, enkantea... Ondoren, elkarrekin bazkalduko dute, eta dantzarako tartea ere izango da. Bazkarirako menuak eta ogitartekoak salgai jarriko dituzte ikastolan, baina menua eskatzeko, astelehena izango da azken eguna.



## **‘Eus’ domeinua hartu du DanobatGroup-ek**

DanobatGroup-ek eta talde hori osatzen duten kooperatiba guztiek ‘eus’ domeinua hartu dute. Euskara eta euskal kulturaren komunitatearen Interneteko lehen mailako domeinua da ‘eus’, euskara beste hizkuntzen mailan kokatzen duena, euskararen normalizazioan lagunduko duena eta euskararen herriari nazioarteko aitortza eskaintzen diona.

## **Munlet taldearen emanaldia izango da etzi, ‘Txikimusika’ ekimenaren barruan**

Euskal Eskola Publikoaren jaiaren harira hainbat ekintza antolatu dituzte Elgoibarren, eta horietako bat da *Txikimusika* ekimena, musika txikienei gerturatzeko Sinusek, Elgoibarko Bandak eta Inazio Bereziartua musika eskolak elkarlanean antolatu dutena. Domeka honetan emango diote bukaera ekimenari, Mendaroko Munlet taldearen kontzertuarekin. Kultur Etxeko sotoan izango da, 17:00etatik aurrera. Elgoibarko Udal Musika Bandak, Murgos musikari eibartarrak eta Belceblues taldeak ere parte hartu dute.

## **Balorazio konpartituta egiteko bilera antolatu du Elgoibarko EHBilduk**

EHBilduk onartu du domekako emaitzak ez direla espero ziteztenak izan eta herritarrekin batera lanean jarraitzeko konpromisoa agertu du. Esan du erabakitze eskubidea bultzatzea, herritarren parte-hartzea ziurtatzea, murrizketa sozialik ez egitea eta ustelkeriaren aurkako borroka direla euren konpromisoen oinarriak eta horren baitan oinarrituko dela euren jarduna hurrengo legegintzaldian. Emaitzen inguruan balorazio konpartitua egin nahi du Elgoibarko EHBilduk, baina, eta horretarako bilera irekia antolatu du ekainaren 3rako, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. (19:00)

# Hemen dira Trinitateak



**Ekintzaz beteriko asteburua izango dugu Elgoibarren eta Mendaron, bi herrietan ospatuko dituzte-eta Trinitate jaiak. Ume, gazte zein helduentzako ekintzak prestatu dituzte antolatzaileek, eta bakoitzak izango du non aukeratu.**

**Ainhoa Andonegi**

**U**rtero bezala Trinitateetako azoka bereziak hasiko ditu jaiak Elgoibarren. Zapatu goizean Elgoibarko baserrietako produktuak erosi eta dastatzeko aukera egongo da batetik, eta bestetik, Elgoibarko baserrietan hazitako abereak jarriko dituzte ikusgai Lekuederren eta Aita Agirre plazan. Horrez gain, kalitatezko produktuak dastatzeko aukera ere egongo da. Lumagorri oilaskoa eta Basatxerri txerrien sahieskia eta hirugiharrekin eginiko pintxoak salduko dituzte. Eguerdian, emakumeen arteko trontza lehiaketa egingo dute Kalegoen plazan: Itsaso Onsalo eta Amaia Garzia; Uxue Ansoregi eta Irati Astondoa; Leire Ugarte eta Nahia Senper arituko dira lehian. Segidan, Idoia Etxebarriak harri-jasotze erakustaldia eskainiko du Kalegoen plazan. Arratsaldean, bestalde, Inazio Bereziartua musika eskolako dantza ikasleen txanda

izango da. Haritz dantza taldeko kideekin eta Udaleko txistulariekin batera, dantza jaialdia eskainiko dute Kalegoen plazan.

## **Danborrada, 00:00etan**

Danbor hotsak gauean iritsiko dira, baina ohikoa baino ordu erdi beranduago. Athletic eta Bartzelonaren arteko Kopa Txapelketako finala dela-eta, antolatzaileek ordu erdiz atzeratu dute danborradaren hasiera. Aurten, gainera, EITBk zuzenean emango du danborradaren hasiera, ETB4 kanalaren bidez. Domekan, bestalde, 23:00etatik aurrera Elgoibarko Trinitate jaiei buruzko erreportaje berezia eskainiko dute ETB1ean, zapatuan zehar Elgoibarren grabatutako irudiekin.

Aurtengo danborrada Atabal elkartearen hamargarrena izango da. Atabal elkarteak berreskuratu zuen Trinitateetako nagusien danborrada, eta urtero gai baten inguruan

antolatu izan dute, eta, urte horretan herrian protagonista izan direnak omendu izan dituzte. Aurtengoa hamargarren edizioa denez, aurreko urteetako motibo guztiak bilduko dituzte karroza batean, danborradaren etapa berriaren errepasso moduko bat egiteko. Beste karroza txiki batean bildotsak erreko dituzte, eta hirugarren karroza batean lau bildots eramango dituzte bizirik. Juan Carlos Arrieta Atabal taldeko kideak esandakoaren arabera, 200 bat lagunek hartuko dute parte danborradan, eta Udal Musika Bandak jarriko du musika. Aurtengoan omendu berezirik ez dela egongo ere aurreratu du Arrietak, baina *Artillero dale fuego* abestia hainbat urtetean artilleroen kapitain papera bete zuen Javier Linazasoro bergararari eskainiko diote. Orain dela hiru bat urtera arte urtero etorri izan zen Linazasoro Elgoibarko danborradara, baina osasun arazoengatik utzi egin



behar izan zion etortzeari. Joan den martxoaren 30ean hil zen, eta Atabal taldeko kideek gogoan izango dute biharko saioan.

Horrez gain, danborradaren hasieran kartel lehiaketako sari banaketa egingo dute. Nerea Oteizak irabazi du aurtengo lehiaketa, eta 300 euroko saria emango diote bihar.

### Umeen danborrada, domekan

Domeka goizean, berriz, umeek hartuko dituzte kaleak, eta haien eskutik etorriko dira danbor hotsak. Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta, 12:00etan hasiko da etxeko txikienen danborrada, Kalegoen plazan. 68 ume joango dira danborra jotzen, 101 barriero, 39 iñude eta artzai, 10 kantinera eta 40 lagun musika jotzen. Karroza erraldoi batek lagunduko die musika eskolako umeei, baina antolatzailiek ez dute aurreratu karrozaren gaia zein izango den. Sorpresa izatea nahi izaten dute, eta egunean bertan argituko du-



te aurtengo gaia. 5 urteko 23 ume eta bi urteko beste hamabi joango dira karrozan.

Horrekin batera, artistek ere izango dute euren lekua domeka goizean, eta

denetarikoa artelan eta eskulanak ikusi eta erosteko aukera izango da Lekuederren. Trinitateetako egitarau osoa agendan ikus dezakezue.

## MENDARON ERE TRINITATEAK

### Trinitate baseliza inguruan ospatuko dituzte mendarotarrek Trinitate Jaiak

**G**aur hasiko dituzte Mendaron Trinitate jaiak, Bizi-Poza txarangaren kalejirarekin, eta bihar, 17:00etan, jasoko dute arbola. Egunik handienak, baina, domeka eta astelehena izango dira. Domekan, txistularien kalejirarekin hasiko dute eguna, eta meza nagusia izango dute gero, 11:30ean. Elizako abesbatzak eta Ameikutz musika eskolako haurrek musikaz eta kantuz jantziko dute meza, eta Josune eta Maitte trikitilariek girotuko dute meza otea. Eguerdia aldera herri kirolak izango dira, eta horrekin amaituko dituzte domekako ospakizunak. Anjel Arrospide eta Fausto Mugertzak egingo dute aizkoran, eta Uxue Ansorregi eta Irati Astondoa arituko dira trontzan eta txingetan.

Astelehena izango da Trinitate Eguna, eta meza nagusiarekin hasiko dituzte eguneko ekitaldiak, 11:00etan. Ondoren, ikastolako haurrek bertso jaialdia eskainiko



dute, Laja eta Larrañagaren trikiti soinuek lagunduta. 14:30ean, Toki Alai jatetxean bazkaria egingo dute. Gauean, berriz, afa-

ria egingo dute Aizpen. Laja eta Larrañaga trikitilariek eta bertsolariek girotuko dute afalostea.





## MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



Mendarozabal, z/g  
(Ospitale aurrean)  
Mendaro  
Tel. 943 756 252

ASTELEHENETIK OSTIRALERA:  
8:00retatik 19:00retara  
LARUNBAT ETA IGANDEETAN  
9:00retatik 13:00etara

Enkarguak jasotzen  
ditugu 24 orduz  
Tel.: 665 724 848



## ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA

Oihane Osoro Kaperotxipi

- ERREFORMAK
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ALTZARIAK LOGELARAKO, EGONGELARAKO, SUKALDEAK, ARMAIRUAK, ETAB.
- QUICK STEP LUR ZORU LAMINATUEN BANATZAILER OFIZIALA

San Frantzisko, 54 behea  
20870 ELGOIBAR  
Tel. / Faxa: 943 748 918  
Mugikorra: 687 694 264  
osokad@gmail.com  
www.facebook.com/osoka.altzariaketa dekorazioa



CORDON  
VILARCHAO

### DEKORAZIOA

Korpo eta barmeko estaldura  
Zolak ezarria  
Lantekua: eguzi, aluminio, PVC,  
Pintura orokorra



San Roke, 7 behea  
Pst. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 749 570



## AZALEA Edergintza

M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 740 310

### HIDRODEPURAZIOA Organismoaren garbiketa naturala

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA  
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizantzakoa) - Mikropigmentazioa

- ◆ GOSARIAK
- ◆ PINTXOAK
- ◆ EGUNEKO MENUAK
- ◆ BOKATAK
- ◆ RAZIOAK
- ◆ ...

Maala Kafetegia  
Pedro Mugurutzka, 5  
Tel. 943 257 421

# Maala

KAFETEGIA

[www.facebook.com/pages/Maala-kafetegia/1512342115683641](http://www.facebook.com/pages/Maala-kafetegia/1512342115683641)

## BIZKOR BIZIKLETAK

Bizikleten salmenta eta konponketak



Uparitzaga, 8 Elgoibar  
Tel. 943 055 049  
bizkorbizikletak@hotmail.com  
www.facebook.com/bizkorbizikletak

- %15eko deskontuak karbonozko bizikletetan, kupoi hau erakutsiz gero
- %10eko deskontuak aluminiozko bizikletetan, kupoi hau erakutsiz gero
- %5eko deskontuak osagarrietan betirako.

Irailaren 30era arteko balioa du eskaintza honek.  
Deskontu hau ezin da pilatu.



San Ignazio, 1 - Elgoibar  
Tel.: 943 531 745  
jasone@jasonesg.com  
www.jasonesg.com

Diseinu grafikoak  
Inprimatzea  
Formatu handiko kartelgintza  
Formatu handiko argazkigintza



URKIDI  
AHOLKULARITZA



Oihana Urkidi  
oihana@urkidi.net

Tel.: 943 74 18 91  
Faxa: 943 53 01 49  
Kalamua, 12

# LANBIDE HEZIKETAKO OLINPIKOAK

Jon Lapeira eta Eneko Alkorta IMHko eta Mekako ikasleak dira hurrenez hurren eta Madrilen jokatutako Lanbide Heziketako Skills olinpiar jokoetatik itzuli berri dira. 18 eta 19 urte dituzte, azpeitiarrak dira eta ikasketetako lehenengo urtea egiten ari diren arren, oso fin aritu dira Espainiako Txapelketan. Jon Lapeirak, esaterako, urrea lortu du bere sailean, eta abuztuan Brasilen jokatutako munduko txapelketarako sailkatu da.

**JON LAPEIRA**  
IMHko ikaslea



Igor Larrañaga irakaslea eta Jon Lapeira.

## “Urrea lortu nuela esan zidatenean sinistu ere ez nuen egin”

**Zer diharduzu ikasten?**

Goi Mailako Fabrikazio Mekanikoko programazioa egiten dihardut, lehenengo urtean. Batxilergoa amaitu nuenean, ez nekien zer egin ere, baina aita mundu honetan dabil komertzial lanetan, eta berak gomendatu zidan IMHra etortzea, fama ona zuela-eta. Egia esan behar bada, hasieran ez nekien zertan izena eman nuen ere, baina gustatzen zait egiten ari naizena, batez ere ebaluatzeko duten eragatik. Proiektuak doa ikasturtea, eta gai guztiak daude elkarri lotuta. Horrek oso interesgarria eta eramaneraza egiten du dena.

**Lehenengo urtea duzu IMHn, eta lehiaketara aurkeztu eta goia jo duzu. Espero zenuen? Nolatan animatu zinen parte hartzera?**

Zoriz egokitu zait niri joatea. Berez, Espainiako txapelketarako, Euskadikoan ondo ibili direnak sailkatzen dira, baina aurretik ez da Euskadikorik jokatuko. Gainera, bigarren mailako ikasleek parte hartzen dute berez

lehiaketa honetan, baina aurretik, Hezibiko sistema dualarekin ari zirenean, beste ezer prestatzeko astirik gabe, eta ez zen inor animatu. Nik eza gutzen nuen Iñaki Hernandez, duela bi urte txapelketa honetan bertan urrea lortu zuen IMHko ikaslea, eta irakasleak [Igor Larrañaga] haren laguntza behar zenez lehiaketara zihoanari erakusteko eta ni haren eza-guna nintzenez, neu aukeratu ninduten. Gogorra izan da, hori bai. Otsailetik maiatzera bitartean, hemen ibili gara arratsaldero lau-bost ordu sartzen eskola ordutik aparte. Askok ikasi dut, baina hala ere, 'ea zikena ez dudana egiten' pentsatuz joan nintzen Madrilera, ointxe hasi bainaz ikasten. Emaitza ez nuen nik neuk inondik inora espero. Esan zidatenean, sinistu ere ez nuen egin.

**Zer nolako proba gainditu behar izan zenuten han?**

Bi makina zeuden han zortzi lagunentzat: fresatzaila bat eta tornu bat. Aurreko edizioetan bietako batean aritu behar izaten zen, baina aurretik

bietan jardun dugu. Hasiera batean esan ziguten hiru egunetan launa pieza egin beharko genituela fresatzailean eta tornuan, baina bistan zen ez zigula astirik emango zortziroko lan hori egiteko, fresatzailean hiru bat ordu behar direlako pieza bat egiteko eta tornuan pare bat-edo. Laburtzeko eskatu genien, eta azkenean pieza bat egin behar izan dugu fresatzailean, bi pieza tornuan, eta ondoren sei piezaren simulazioa ordenagailuan. Alegia, pieza sortzeko programa sortu, pieza bera egin beharrik gabe.

#### **Joan aurretik ba al zenekiten zertan jardun beharko zineten?**

Ez. Itsu-itsuan joan gara gu. Normalean webgunean bertan jartzen dute probaren %90 zer izango den, eta eginbeharrekoa zailtze aldera, azkeneko orduan jakinarazten dizute beste zer gehiago egin beharko duzun, baina aurten ez dugu ezer jakin aurrez. Zer erreminta eraman behar genituen genekien bakar-bakarrik, baina zer egin behar genuen ez.

#### **Aitortu duzu aurrez ez zenuela irabazterik espero, baina han bertan izango zenuen ingurukoak egiten ari zirena ikusteko aukera ere. Nola ikusi zenituen besteak? Eta zu zeu?**

Albokoari begira egoteko astirik ez zen han! Egia da, hori bai, ni neu gustura gelditu nintzela egindakoaz, baina nire antzera ikasten hiru hila-bete bakarrik egin dituenak ondo egitea zer den ere ez daki, eta ezin ba jakin! Begiratzen nien tarte-ka besteei ere, eta begiratu batean ematen zuen ondo eginak zituztela piezak, baina hemen ezin zaitezke sekula fidatu, ehunenetan lan egiten delako, oso-oso tamaina txikitan, eta zaila delako begiz piezak neurritz ondo ala gaizki dauden antzematea. Ni baino gehiago zirela sinetsita nengoen, gainera. Valentziakoa eta ni neu ginen han gazteenak. Bigarren egin zuenak, adibidez, Fabrikazio Mekanikoko erdi mailako modulo bat zeukan eginda eta Goi Mailakoa bukatu berri, praktikak egiten ziharduen orain. Nik, berriz, hiru hilabeteko prestakuntza baino ez nuen...

#### **Hiru hilabeteen ondoan izan dituzunek ere badute hortaz meritua pixkat kontu honetan.**

Bai, handia. Igorrek lan handia egin du nirekin eta baita Iñakik ere. Lanetik irten eta niri programa nola erabiltzen zen irakastera etortzen zen hona egunero Iñaki, eta hori eskertzekoa da. Huts-hutsetik hasi naiz ni, eta bi hauen laguntzarik gabe ni ez nintzateke ezer. Gogor saiatu gara eta emaitza ikusi da.

#### **IMHn hasi zihenean zer egin nahi zenuen ere ez zenekiela aitortu duzu.**

#### **Urrea irabazteak lagunduko du bidea argiago ikusten, ala?**

Bai, bai. Tornua zer zen ere larri-larri nekien nik hemen hasi nintzenean. Ate Irekien egunean ikusi nuen lehenengoz tornua. Lehiaketarako prestatzen egin dudana denboran, hala ere, asko ikasi dut, eta oso gustura aritu naiz gainera. Pozik nago gustuko gauza aukeratu dudala jabetu naizelako, hasi nintzenean ez nuelako batere garbi. Lehiaketarako prestatzen egun osoa IMHn igaro arren, orduak azkar pasatzen zitzaizkidan eta hori seinale ona da.

#### **Abuztuaren 11tik 16ra munduko txapelketan lehiatuko zara, Brasilen. Nolako aurreikusten duzu?**

Ikusi ditut aurreko urteetan nazioarteko txapelketan egin behar izan dituzten piezak eta guk Madrilen sortu behar izan ditugun aldean oso

zailak dira, oso-oso zailak. Piezak egiteko denbora tartea ere laburragoa da, eta ez dakit bukatzeko gai izango naizen ere. Ahal den ondoren egiten saiatuko naiz, baina han ez daukat nik ezer egiteko aukerarik. Esperientzia bizitzea bera ere handia da, hala ere. Behin ere ez naiz izan Brasilen eta esperientzia moduan izugarria izango dela badakit. Igor, Iñaki eta hirurok joango gara ziurrenik, eta ni neu gustura nago. Irabazi zuenean Iñakik ezin izan zuen munduko txapelketara joan, dirurik ez zegoelako, eta berarentzat ere sari txiki bat izango da hau. Merrezi du. Korearrekin, suitzarekin...lehiatuko naiz han, onenekin, eta ikasteko ere balioko dit. Entzuna dut urte osoa ematen dutela horiek hau prestatzen eta horien kontra gauza handirik egiterik ez dut izango nik, baina ahaleginduko naiz.

#### **Han zer egin beharko duzun ba al dakizu?**

Zein programa erabiliko dugun dakit bakarrik. Madrilerako Siemens programa ikasi behar izan dut eta Brasilen Mastercam erabili beharko dudanez, zerotik hasi beharko naiz berriro ikasten, baina gustura egingo dut. Asturiasko eskola baten programa hori erabiltzen dute, eta hura ere joatekoa naiz Igorrekin, probatzera. Nire tutorea ez, hurrena bihurtu da Igor azkeneko hilabeteetan, eta eskertzen diot nirekin egiten ari den lana. Madrilen ere sufritu du nahikoa. Aurreko edizioetan epaimahaikide izaten ziren gure tutoreak, baina aurten enpresa batzuk kontratatu dituzte lan horretarako, eta tutore gaixoak han egon dira, kanpoan, animoak eman beste ezer egin ezin zutela. Ez da ederra izan behar hori ere, hamar ordu han guri begira egotea!

#### **Madrilen parte hartzeak zer eman dizu?**

Oso esperientzia aberasgarria izan da. Jende

berria ezagutu dut, tartean han erabili ditugun Haas makinaren ordezkariak direnak ere, eta mundu horretako jendea ezagutzea eta haiek duten ezagutza hori jasotzea interesgarria da. Aldi berean, presiopean lan egiten ere ikasi dut, eta hori ere ona dela esango nuke. Topera lan egin dugu hiru egunetan. 9:00etan sartzen ginen lanera, eta 19:00ak arte ematen genuen lehiak, bazkaltzeko orduerdiko tartea hartuta. Azkenerrako leher eginda bukatzen genuen. Ahalik eta arinen bukatu behar zen egitekoa eta azkeneko egunean garaiz bukatu nuen, behintzat arratsalde hori izan nuen libre, besteak zertan ari ziren ikusteko.

#### **Euskal Herritik zenbat lagun joan zarete?**

Lehiatzera hamabost bat joan ginen, eta bakoitzak bere tutorea eraman zuen.

#### **Lanbide Heziketa aukeratu duzu. Espero zenuena topatu duzu?**

Asko gustatu zait. IMHK harreman handia dauka inguruko enpresekin eta hori igartzen da hemen, tailerrean dauzkagun baliabideak ere punta-puntakoak direlako. Nik beste eskolak ez ditut ezagutzen, eta ezin dut konparaziorik egin, baina hemen topatu dudana hau behintzat oso ondo dago. Ekainean lanean hasiko naiz Mendaroko enpresa batean, eta gogorra izango da. Lau ordu egingo ditut eskolan eta beste lau ordu enpresan praktikak egiten, eta hori dena lehiaketarako prestakete-kin uztartu beharko dut.

#### **Uste duzu aterik zabalduko dizula Skills olimpiadak irabazi izanak?**

Nik neuk ez dut ezer espero oraindik, baina pentsatzen dut lagunduko duela curriculum osatzeko behintzat.

**“Igor Larrañagak lan handia egin du nirekin, eta baita Iñaki Hernandezek ere”**

## ENEKO ALKORTA

Meka ikastetxeko ikaslea

### Zer ikasten ari zara?

Soldadura eta Galdaragintzako Zikloko lehenengo urtea egiten dihardut, Mekan. Azpeitian izen ona dute IMHK eta Mekak eta horregatik etorri nintzen hona.

### Skills olinpiadetan parte hartu duzu zuk ere Madrilen. Zer nolako esperientzia izan da?

Oso ona. Esperientzia aberasgarria izan da, baina gogorra ere bai. Hiru egunetan topera jardun dugu lanean. 9:00etan hasten zen proba eta 19:00ak arte hantxe ibiltzen ginen, bazkaltzeko tartetxo bat hartuta. Soldadura alorrean lehiatu naiz ni. Guztira bederatzi lehiakide ginen, eta neu nintzen denetan gazteena. Hemen, Euskal Herrian, 20 urtez behera izatea eskatzen dute Skillsetan lehiatzeko, baina han baziren 25 urtekoak ere, gailiziarra esaterako. Maila handia zegoen han, egia esan. Goi mailako ikasketak bukatuta lanean ari zirenak ere baziren tartean. Ni, berriaz, orain pare bat hilabete hasi nintzen lehiaketarako prestatzen, baina burubelarri azkeneko hiru asteak eman ditut honetan. Hemen gutxitxo eginda joan nintzen Madrilerara, baina gustura jardun nuen han.

**Aurrez bazenekien egin beharreko probak nolakoak izango ziren?**



## “Esperientzia gisa oso aberasgarria izan da, baina gogorra ere bai”

Gutxi gorabeherako zerbait bagenekien, webgunean jartzen dutelako informazio apurren bat, baina ezustekoak ere izan dira. Banezien burdin tipo ezberdinekin egin beharko nuela lan eta aluminioari nion nik beldurra. Aluminioa material zaila da soldatzeko eta huraxe jarri ziguten! Sufritu nuen, egia esan. Lehertuta bukatzen nuen eguna. Bigarren egunerako zisko eginda nengoen, adibidez,

baina asko ikasi dut. Ikasteko oso ondo etortzen dira halako probak. Zer egin nuen ez dakit, lehenengo hiruren izenak bakarrik eman zituztelako, baina ni neu hirugarren egunera arteko probetan oso gustura aritu nintzen.

### Berriro saiatuko zinateke orduan?

Aukera banu, bai, baina zaila. Bi urtean behin izaten dira olinpiadak, eta nik orain 19 urte ditut...

Ehun metro koadroko tatamia alokatzen da orduka.  
Egokia yoga, pilates, arte martzialak eta abarrak egiteko.  
Informazioa 676 534 106

**Tatamia alokairuan!**

**B** Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN**en edo [www.elgoiBARREN.eus](http://www.elgoiBARREN.eus) webgunean

**BARREN**  
astekarian  
943 744 112  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

**IKASNET Informatika**  
Centro Tecnológico Informático - Informática para Todos  
Otaola etorbidea 5 - 20500 - Elbar

**Lanbide**  
Euskal Enplegu Zerbitzua  
Servicio Vasco de Empleo

‘Produktu grafikoaren diseinua’  
Lanbidek diruz lagundutako ikastaroa  
hasiera data: 2015/06/12 300 ordu

943120156 [ikasnet@ikasnet.com](mailto:ikasnet@ikasnet.com)

# Ekainaren 13an hartuko dute kargua zinegotzi berriek

EAJk gehiengo osoz irabazi du Elgoibarren, eta alkatetza berretsi du EHBilduk Mendaron

**H**erriarrek adierazi dute zelako Udalak nahi dituzten, baina ez dira bat-batean osatuko. Ekainaren 13an hartuko dute kargua zinegotzi berriek, eta ordura arte ohiko kudeaketa izango dute eskumen bakarra. Hau da, tarte horretan ezingo dute erabaki handirik hartu. Hona hemen hauteskunde emaitzen laburpena.

Elgoibarren, EAJk lortu du boto kopuru handiena (2.997), eta lehen indarra izaten jarraitzen du, baina gehiengo osoz. 2011ko Udal eta Foru Hauteskundeetan baino 525 boto gehiago eskuratu dituzte jeltzaleek Udalerako, eta bederatzi zinegotzi eskuratu dituzte, duela lau urtekoetan baino bi gehiago. Adierazgarria izan da EAJren gorakada, bai Elgoibarren eta baita Gipuzkoako beste udalerrri handi batzuetan ere. Arrasate, Zarautz, Bergara, Azkoitia, Tolosa, Beasain... berreskuratu dituzte, adibidez.

EHBilduren kaltetan egin du gora EAJk botoetan. 1.709 boto lortu ditu koalizioak Udal Hauteskundeetan, 2011n baino 328 gutxiago, eta ondorioz zinegotzi bat ere galdu du [sei izango ditu]. PSE-EE izan da hirugarren alderdi bozkatuena Elgoibarren, nahiz honek ere behera egin duen boto kopuruan. 33 botu galdu dituzte sozialistek, baina helburua bete dute, zitzuten bi zinegotzietan eustea lortu dutelako. PPK, berriz, botoak ez ezik zuen zinegotzi bakarra ere galdu du Elgoibarren,

eta jaitsiera hori orokorra izan da Euskal Herrian.

Mendaron, berriz, alkatetza berretsi du EHBilduk, gehiengo osoz. Boto kopuruan behera egin arren, koalizioa izan da bozkatuena Mendaron, eta bost zinegotzietan eutsi die. EAJ izan da bigarren alderdi bozkatuena, Mendaron, 334 botorekin. Lau zinegotzi lortu dituzte [hiru zitzuten lehendik] jeltzaleek, PSE-EEK galdutakoa bere eginda. PSE-EEK eta PPK hemeretzi botona gutxio lortu dituzte.

## Batzar Nagusiak

Batzar Nagusietarako, Gipuzkoako joera nagusia errepikatu da Elgoibarren eta Mendaron: EAJ gailendu da bietan. Elgoibarren, 2.469 boto lortu dituzte jeltzaleek, EHBilduk bai 876 boto gehiago, eta sozialistek eta popularrei aurrea hartuta, Podemos izan da hirugarren indarra, 464 botorekin. Mendaroko kasua adierazgarriagoa da. Herrirako EHBildu aukeratu arren, Batzar Nagusietarako EAJren alde egin dutelako herriarrek. 363 boto lortu ditu EAJk, 313 EHBilduk, 87 Podemos, 64 PSE-EEK, 19 PPK eta 17 irabazik. Orotara, 18 batzarkide lortu ditu EAJk Gipuzkoan, 17 EHBilduk, 9 PSE-EEK, PPK bat eta Ahal Duguk, berriz, sei. Bototan, 32.000 botoko hazkundea izan du EAJk 2011tik.

## ELGOIBAR



Ane Beitia EAJ	Iosu Arraiz EAJ	Maialen Gurrutxaga EAJ	Gorka Garaizabal EAJ	Bittori Zabala EAJ	Andrea Arriola EAJ	Blanca Larrañaga EAJ	Ioseba Arrizabalaga EAJ	Unai Arizmendiarrera EAJ
-------------------	--------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------	-----------------------	-------------------------	----------------------------	-----------------------------



Jose Luis Ibarzabal EHBILDU	Iñaki Larrañaga EHBILDU	Mireia Isasmendi EHBILDU	Miren Arrate Arrieta EHBILDU	Joseba Osoro EHBILDU	Jon Peli Uriguen EHBILDU	Nerea Alustiza PSE-EE	Fernando Suarez PSE-EE
--------------------------------	----------------------------	-----------------------------	---------------------------------	-------------------------	-----------------------------	--------------------------	---------------------------

## MENDARO



Sonia Garcia EHBILDU	Borja Rodriguez EHBILDU	Aitor Basurto EHBILDU	Zitoritz Urain EHBILDU	Iñigo Bastida EHBILDU	Irune Berasaluze EAJ	Maite Apellaniz EAJ	Iñaki Arregi EAJ	Anjel Maria Iriondo EAJ
-------------------------	----------------------------	--------------------------	---------------------------	--------------------------	-------------------------	------------------------	---------------------	----------------------------

## Dagoeneko 49 elkarte-erakundek esan dute parte hartuko dutela aurtengo 'Euskarak 365 Egun' ekimenean

Azaroaren 28an egingo dira lipdub-a eta herri-bazkaria



**E**uskal eragileek eguaztenean aurkeztu zuten *Euskarak 365* egitasmoa, musika eskolako auditorioan. Elgoibartarron euskaltasuna eta euskaraz bizitzeko gogoia sustatzea izango da egitasmoaren helburua, eta herriko kaleetan eta plazetan aldarrikatuko dituzte euren balioak. Elkarte-erakundeak izango dira protagonista eta modu ludiko-motibagarrian aldarrikatuko dute euren euskaltasuna.

Abenduaren 3an da Euskararen Nazioarteko Eguna, eta aurtengo ospakizunak azaroaren 28an egingo dituzte, 13:00etatik aurrera. Bi ekimen nagusi prestatu dituzte: Batetik, lipdub-a egingo dute Maalatiik Kalegoen plazaraino. Aitor Novak ekimen horretarako bereziki prestatuko du musika, Uxue Alberdik egingo du kantaren letra eta Josu Mujika dantzaria arduratuko da koregrafiaz. Liddub-a amaitutakoan herri-bazkaria egingo dute Ikastolako frontoian.

Ekimen herrikoa eta parte-hartzailea izateko apustua egin dute antolatzaileek, eta dagoeneko herriko 49 elkarte-erakundek ziurtatu dute euren parte-hartzea. Interesatuak uztailaren 24ra arteko epea dute izena emateko.

- |                                    |                             |
|------------------------------------|-----------------------------|
| - IMH ikastetxea                   | - Mintxeta atletismo taldea |
| - Haritz dantzari-taldea           | - Lagun taldea              |
| - CD Elgoibar                      | - Sare                      |
| - Mausitxa txaranga                | - LAB                       |
| - Gazte Asanblada                  | - EA                        |
| - DANOBATGROUP                     | - Aralar                    |
| - Arnaldo askatu plataforma        | - Elgoibarko Institutua     |
| - Nagusilan                        | - Elgoibarko Izarra         |
| - Prekariatatearen kontrako taldea | - Haurreskola               |
| - Stop deshaucios                  | - Herri Eskola              |
| - Gure Esku Dago                   | - Ikastola                  |
| - Ongarri zinekluba                | - Sortu                     |
| - Ongarri argazki taldea           | - Udala                     |
| - Egur                             | - AEK euskaltegia           |
| - Txankakua                        | - Errigora                  |
| - Filatelia                        | - Udal euskaltegia          |
| - EAJ                              | - Morkaiko                  |
| - Urbizi urpekari-taldea           | - Haizea                    |
| - Lagunak pilota eskola            | - Tennis elkarte            |
| - Eskuz                            | - Dultzaineroak             |
| - Meka                             | - Kale-kantariak            |
| - Igeriketa taldea                 | - Sanlo                     |
| - Urnobotza motokluba              | - Gurutze Gorria            |
| - Eliza                            | - Musika Eskola             |

### Institutuko ikasleak Alemanian izan dira



Institutuko Batxilergoko ikasleak Alemanian izan dira apirilaren 12tik 19ra. Apirilean hango ikasleak izan ziren Elgoibarren, eta orain hemengoak joan dira hara. Karlsruhe hirian egon dira, Lessling Gymnasium-eko ikaskideak bisitatzen. Hango familien etxeetan hartu dute ostatu, eta klaseetara ere joan dira. Turismo apur bat ere egin dute eta Heidelberg, Baso Beltza eta beste hainbat leku bisitatu dituzte.

### Flamenko ikastaroa antolatu dute biharko

Egun osoko flamenko ikastaroa antolatu dute biharko, eta Lidia de Lorenzo ermuarra izango da irakaslea. Ikastaroan bi gai nagusi landuko dituzte: Batetik, dantza eta bestetik, musika. Goizean flamenko dantzaren oinarriko jakintzak eskainiko dituzte, konpasa eta kantearekin uztartuz. Eta arratsaldean berriz, sevillana flamenkoa irakatsiko du. Parte hartu nahi duenak izena eman beharko du. Informazio gehiagorako 630 58 87 45 telefonora deitu edo [gurrutaka@yahoo.es](mailto:gurrutaka@yahoo.es) helbidera idatzi daiteke.



# Jorge Lopez gasteiztarrak irabazi du trinitateetako kaleko margo lehiaketa

Margolanak Kultur Etxeko sotoan daude ikusgai igandera arte



**T**rinidade jaien harira, joan zen zapatuan Kaleko Margo Lehiaketaren laugarren ekinaldia antolatu zuen Egur arte taldeak Udalaren laguntzarekin, eta guztira hamalau lagunek hartu zuten parte. Epaimahaiak Jorge Lopez Marron gasteiztarrak aurkeztutako margolanari eman zion lehen saria. Erandiotik etorri zen Jose Miguel Arranzek jasozuen bigarren saria. Lehen eta bigarren sarituek King-kong eraikina irudikatu zuten euren margolanetan. Hirugarren saria Juan Jose Altuna bergararrak eskuratu zuen. San Frantziskoko iturria eta ingurua ikusten dira Altunaren margolanean. Lehiaketara aurkeztutako lanak Kultur Etxeko sotoan egongo dira ikusgai domekara arte.

## Auresku txapelketako finala jokatu zuten Elgoibarko dantzariak

Joan zen zapatuan jokatu zen Euskadiko Auresku Txapelketako finala, eta beste hainbat dantzariaren artean, Elgoibarko hiru ordezkari hartu zuten parte: Oier Galindok bosgarren egin zuen 7 eta 11 urte bitartekoen saillean, eta, 11-15 urtekoen saillean, Eneko Gonzalezek seigarren egin zuen eta Gaizka Urangak bederatzigarren.

Gaztetxoaren txapelketa bukatu da, eta orain 15 urtetik aurrekoen txanda hasiko da. Zazurazko txapelketa izango da lehenengoa, irailean.



## Udarako eskaintza zabala prestatu dute Elgoibarko Ludotekak eta Gaztelekuak

Elgoibarko Ludotekak eta Gaztelekuak udarako hainbat ekintza antolatu dituzte, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Ludotekako umeentzako udalekuak, egun-pasak, asteburu-pasak eta bestelako hainbat irteera antolatu dituzte. Ekintza horietan parte hartzeko ludotekako bazkide izan behar da. Maiatzetik uztailera bitarteko bazkidetza kuota 15 eurokoa da. Informazio gehiagorako 943 748 883 telefonora deitu daiteke. Gaztelekuak, bestalde, Arcachoneko ur-parkera irteera, zaldian ibiltzera joatea, surf ikastaroa eta Konkis Tourra antolatu ditu, besteak beste. Horrez gain, Larraulen astebeteko udalekuak egingo dituzte, eta Gaztetxef saioa ere antolatu dute. Horiei buruzko informazio guztia 943 743 228 telefonoan eskuratu daiteke.

## Sanbartolomeetako kartel lehiaketak martxan

Kultura Sailak sanbartolomeetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa jarri du martxan 18 urtetik gorakoentzat, eta umeentzako, berriz, kartel lehiaketa antolatu du.

Lehenengoan 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, eta haurren saillean, berriz, 18 urtetik beherakoek. Bietan teknika librea erabili ahal izango da, baina ezinbestean agertu behar da esaldu hau kartelean: *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2015*. Nagusien kasuan irabazleak 700 euro irabaziko ditu, eta umeen lehiaketan dirutan ez den sei sari banatuko dituzte. Lanak aurkezteko azken eguna uztailaren 3a izango da.

Nagusien lehiaketako sari banaketa abuztuaren 22an egingo dute, eta haurren lehiaketakoa berriz, San Bartolome jaietako Umeen Egunean izango da.

## Sanloko hiru taldek Gipuzkoako Kopako finalak jokatuko dituzte asteburuan

Alkorta eta Lauko taldeek etxean jokatuko dute, eta Bankoak kanpoan

**S**anloko Alkorta, Lauko eta Bankoa taldeek Gipuzkoako kopako finalak jokatuko dituzte asteburu honetan. Laukok eta Alkortak etxean jokatuko dute: Lauko senior emakumeen taldeak Zarauzko Aiala taldearen aurka jokatuko du finala bihar, 17:45ean, eta emakumezkoen finala amaitu ostean hasiko da gizonzkoena, 19:00etan. Alkortak Erreenteriako Ereintza taldearen aurka jokatuko du finala. Bankoa kadete mutilen taldeak, bestalde, Irunen jokatuko du, Bidasoa taldearen aurka.

### Joan zen astean bost final

Sanloko bost taldek jokatu zituzten finalak joan zen asteburuan: Tecnifuelle kadete nesken taldeak Espainiako fasea jokatu zuen Iruñean. Barixakuan eta zapatuan jokatutako partidetan BM Palencia eta Knet Casalançio (Logroño) taldeak hartu zituzten mendean elgoibartarrek, baina domekan Burlatako Malkatz taldearen kontra 17-12 galdu zuen Tecnifuellek. Bigarren geratu ziren elgoibartarrak; beraz, ez dira hurrengo faserako sailkatu.



Beste finalei dagokienean, San Roke Kafetegia infantil nesken taldeak Gipuzkoako lurraldeko txapelketa irabazi dute, finalean Ereintzari irabazita. Sanloko Casa Astigarraga, Federopticos Ikus eta Hotel Txarriduna taldeek ere jokatu zituzten finalak, baina galdu egin zituzten. Guztira zortzi final jokatu dituzte Sanloko taldeek denboraldi honetan.

### Laugarren lekuan amaitu du liga txapelketa Concepto Egile areto futbol taldeak

Concepto Egile areto futbol taldeak laugarren postuan amaitu du liga, 61 punturekin. Bigarren buelta "oso ona" egin du taldeak: partida bat galdu eta hiru berdindu ditu, baina gainerako guztiak irabazi egin ditu. Concepto Egile gogor aritu da etxean, eta denboraldi osoan ez du norgehiagokarik galdu. Hala ere, hori guztia ez da nahikoa izan liga txapelketa irabazteko. Concepto Egilek iazko puntu kopuru berbera lortu du, baina bi postu atzerago amaitu du sailkapenean, Colo-Colo, Zierbena eta Pinseque taldeen atzetik. Datorren denboraldiari begira, areto futboleko jokatu nahi duten jubenil, kadete eta infantilei kirol frogak egingo dizkiete datorren ekainaren 3an, 18:00etatik aurrera, Olaizaga kiroldegian.

### Pilota Eguna antolatu dute biharko, Mendaron

Mendaroko Arno Guraso elkarteak Pilota Eguna antolatu du biharko. 10:00etan hasiko dira pilota partidak, frontoian, eta LH1etik LH6ra arteko eskola umeek parte hartuko dute. LH1 eta LH2ko partidak 10:00etan hasiko dira, LH3 eta LH4koak, 11:00etan, eta LH5 eta LH6koak, 12:00etan. Momentuz 70 ikasle daude izena emanda, eta horiei guztiei kamiseta zuria janzteko eskatu diete antolatzaileek.

### Urpekaritza bataioa, bihar

Urbizik urpekaritza bataioa antolatu du biharko. 10:00etatik 13:00etara bitartean egingo dute Olaizaga kiroldegian. Interesatuak izena eman beharko dute, 607 530 461 telefonora deituta.



**2015eko UDA**

Ekainaren 29tik uztailaren 24ra

Asteleheneretik ostiralera

Hiru ordu

4 urtetik 12 urterarte

- Ingelesa ikasteko modurik dibertigarriena
- Programa trinkoa
- Dinamikoa eta praktikoa
- Ingelesez komunikatzen ikasiko duzu

San Inazio, 4 - Elgoibar

943 740 236

idiomas@kensington-sl.es

# Superligarako bidean da Evelyn Santos Oiartzun taldearekin

Azken partidari hiru gol sartu zituen elgoibartarrak

Lehenengo Mailara igotzeko pauso handia eman du Oiartzun Kirol Elkarteko emakumeen futbol talde nagusiak, Madrid CFF taldea kanporatuta. Joaneko partidari 4-2 galdu zuten Madrilen, baina buelta eman zioten markagailuari Oiartzunen jokaturako itzulerako partidari. 4-0 irabazi zioten talde madrildarrari, eta Evelyn Santos elgoibartarrak hiru gol sartu zituen.

Igoera faseko bigarren kanporaketa prestatzen ari da orain Oiartzun. Vigoko El Olivo taldearen aurka jokatu du kanporaketa. Joaneko partida Vigon jokatu du te ekainaren 7an, eta itzulikoa Oiartzunen ekainaren 14an. Kanporaketako irabazleak Lehen Mailan jokatu du hurrengo denboraldian.



## Gipuzkoako Giza Proba txapelketako lehen saioa Mendaron jokatu du, bihar

Asteburu honetan hasiko da Gipuzkoako Giza Proba txapelketa eta lehenengo jardunaldia Mendaron jokatu du, bihar. Lau talde arituko dira lehen: Itziar, Deba, Berrobi eta Mendaro. 950 kiloko harriarekin lan egin beharko dute, eta talde bakoitzak 660 kiloko pisua izan beharko du gehienez. Hortik gorako kilo bakoitzeko bi kiloko gainkarga jarriko zaie.

18:00etan izango da saioa Garagartzako probalekuan, eta sarrera doan izango da.

## Kirol argazkien lehiaketa martxan da

Elgoibarko Udalak eta Ongari argazkilari elkarteak kirol argazkien lehiaketa antolatu dute. Kiroleko arlo guztietako argazkiak aurkeztu daitezke lehiaketara, koloretan nahiz zuri-beltzean. Argazkilari profesionalak zein zaleek hartu dezakete parte, eta bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Argazkiak Olaizaga kiroldegian aurkeztu beharko dira, uztailaren 15erako.

Antolatzaileek hainbat sari banatu dituzte: Herritarren argazki onenak 200 euro jasoko ditu; 13-17 urte bitartekoen artean 150 eurokoa izango da lehen saria, eta 100 eurokoa bigarrena; 18-30 urtekoen artean 300 euro jasoko ditu argazki onenak eta 200 euro bigarrenak, eta azkenik, sari orokorrean 300 eurokoa izango da lehen saria eta 200 eurokoa bigarrena. Sariak abuztuaren 22an banatu dituzte, eta saridunek bertan egon beharko dute. Aurkeztutako argazkiak ikusgai jarriko dituzte Kultur Etxean, abuztuaren 22tik 30era.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 0 – Zarautz 1 (Pref.)  
Elgoibar 2 – Euskalduna 3 (Lehen inf.)  
Elgoibar 3 – Añorga 0 (Inf. Txiki)  
Elgoibar 5 – Soraluze 2 (Aleb.)

### ESKUBALOA

Aloña 25 – Lauko 38 (Sen. neska.)  
Alkorta Elg. 32 – Ereintza 18 (Sen. mut.)  
Legazpi 30 – Gabaz Elg. 23 (Sen. mut.)  
Bera Bera 31 – Astigarraga Elg. 21 (Jub. neska.)  
Tecnifuelle Elg. 29 – BM Palencia 13 (Kad. neska.)  
Calasancio 21 – Tecnifuelle Elg. 25 (Kad. neska.)  
Tecnifuelle Elg. 12 – Malkaitz 17 (Kad. neska.)  
Zarautz 21 – Pneumax Elg. 24 (Kad. neska.)  
Usurbil 24 – Txarriduna Elg. 27 (Inf. mut.)  
Ikus Elg. 19 – Bidasoa 31 (Inf. neska.)  
Ikus Elg. 23 – Ereintza 13 (Inf. neska.)  
Aiala 25 – Ikus Elg. 19 (Inf. neska.)  
Ereintza 16 – San Roke Elg. 22 (Inf. neska.)  
Usurbil 6 – Cometel Elg. 31 (Inf. neska.)  
Murgil Elg. 35 – Amenabar 21 (Inf. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 30

11:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Inf. Txiki)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 30

10:00 Pneumax Elg. – Gasteiz (Kad. neska.)

16:00 Gabaz Elg. – Saieko (Sen. mut.)

17:45 Lauko Elg. – Aiala (Sen. neska.)

19:30 Alkorta Elg. – Ereintza (Sen. mut.)

## Bihar amaituko da aurtengo Eskola Kirola egitasmoa

Bihar izango da Eskola Kirola egitasmoa azken jardunaldia. Ikasturte honetan Herri Eskolako eta Ikastolako 378 haurrek hartu dute parte Eskola Kirola Elkarteak antolatzen dituen jardueretan, eta horri esker, 6 eta 11 urte bitarteko haurrek taldekako zein bakarkako kirolak ezagutzeko aukera izan dute. Bihar atletismo jardunaldia izango dute Mintxeta atletismo taldearen laguntzaz. 10:00etan izango da bihar-ko jardunaldia, Mintxetan.

## 18 taldek eman dute izena Futbol 7 txapelketan

Asteburu honetan hasiko da Bailarako Futbol 7 txapelketa. Aurtengoan 18 taldek eman dute izena, eta horietatik hamar Elgoibarkoak dira. Partidak Mintxetan eta Unben jokatu dituzte.

**LANA**

**ESKAERA**

- Neska eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, esperientziarekin. Ordu-tegi malgua. ☎ **630 410 294**
- Neska eskaintzen da, pertsona nagusiak zaintzeko. 9 urteko esperientzia. ☎ **606 007 742**
- Neska eskaintzen da orduka edo interna nagusiak zaintzeko. ☎ **606 641 609**
- Neska eskaintzen da, esperientziarekin, nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketara lanetarako. ☎ **680 808 125**
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka edo gauez. Erreferentziak onak. ☎ **633 401 678**
- Neska eskaintzen da garbiketara lanetarako, zein pertsona nagusiak zaintzeko; orduka, gauez edo asteburuetan. ☎ **638 338 816**
- Neska eskaintzen da gauez nagusiak zaintzeko. ☎ **615 219 514**
- Neska euskalduna eskaintzen da, orduka lan egiteko. Etxeko lanetarako edo zaintza lanetarako. ☎ **619 041 821 / 943 744 033**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ **602 369 696**
- Emakumea eskaintzen da portalak garbitzeko. ☎ **617 571 210**
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientziarekin. ☎ **631 506 763**
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tabernari lanerako, sukaldari

laguntzaile zein ostalaritzako mantentzen zerbitzuan lan egiteko.

- ☎ **661 064 027**
- Pertsona bat eskaintzen da adinekoak zaintzeko, sukalde laguntzaile izateko edo garbiketara lanak egiteko. ☎ **677 259 560**
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. ☎ **632 767 696**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukalde laguntzaile aritzeko. ☎ **606 354 982**
- Irailetik aurrera umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **633 808 931**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Gauez ere bai. ☎ **688 959 575**

**ESKAITZA**

- Asteburu eta jai egunetan Elgoibarko denda batean lan egiteko neska behar da. 23-35 urte bitartekoa eta euskaraz ondo hitz egitea ezinbestekoa. [elgoibarcv@hotmail.com](mailto:elgoibarcv@hotmail.com)
- Zerbitzari euskalduna eta sukalde laguntzailea behar dira. Esperientzia. **CV bidali Gautxo tabernara.**
- Udarako zerbitzaria behar da Elgoibarko taberna baterako. Bidali CV: [kamareroa@gmail.com](mailto:kamareroa@gmail.com)

**ETXEBIZITZAK**

- Hiru logelako pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **671 289 584**
- Familia batek hirurako pisua

hartuko luke alokairuan Elgoibarren.

- ☎ **631 105 462 / 631 361 762 (Carlos eta Jenny)**
- Apartamentua alokagai Zahara de los Atunesen (Cadiz), hondartzan bertan dago, bi logelakoa, garajearekin. Ekaina, uztaila, iraila eta urrirako, hama-bostaldika. ☎ **647 416 206**
- Uztaillaren 6tik 19ra hirurako pisua hartuko genuke alokairuan. Hiru bikote gara. ☎ **605 083 955**
- Hiru logelako pisua hartuko nuke alokairuan, eta ahal dela altzariarekin. ☎ **603 237 932**
- Etxea edo logela bat alokatuko nuke Elgoibarren. ☎ **636 310 711**

**KINTOAK**

- 50 urte betetzen dituzten mendaroen bazkaria, ekainaren 13an. 12:00etan batuko gara Kilimoi elkartearen eta mokadutxo bat jan eta poteo txiki baten ondoren, Landa erretegian bazkalduko dugu. Ondoren, D.Ja. Izena emateko 85 euro sartu kontu korronte honetan maiatzaren 29rako. KUTXA: 2095 5054 0091 1485 2864.
- 1949an jaiotako bazkaria, ekainaren 13an, Sigman. 12:30ean argazkia elizako arkupean eta gero luntxa lbai Ondo erretegian. 50 euro sartu behar dira Caixan: 2100 4168 74 2100298970. Azken eguna ekainak 6.
- 1955ean jaio eta aurtan 60 urte egingo dituzten bazkaria ekainaren 6an, Sigman. 12:00etan Maalako elizan meza, gero argazkia eta luntxa

Txarridun. 60 euro sartu behar dira Laboral Kutxan: 3035 0007 25 0071116963.

☎ **627 760 248 (Manu Konde)**

**GARAJEAK**

- Garaje irekia saltzen da ikastolako aldapan. 13m2. Merke. ☎ **627 856 989**

**MOTORRA**

- Opel Corsa salgai. Diesel, berde iluna. Merke. ☎ **627 856 989**

**BESTELAKOAK**

- Goiko Errota elkarte gastronomikoko bazkideak behar ditu. ☎ **679 938 070**
- Duela aste batzuk patinetea ahaztu zitzaigun plazan. Horia da, Fliker markakoa. F3 modeloa. ☎ **627 112 877**
- Urrezko pultsera galdu da ikastolatik Basarterako bidean, Paula izena dauka grabatuta. ☎ **675 705 718**
- San Roke kafetegian kanpoko bankuan bi jertse agertu dira. Kafetegian bertan daude gordeta.
- Urrezko pultsera galdu dut. Izena eta data grabatuta dauzka. Balio sentimental handia. Ordainsaria emango dut. ☎ **639 433 144 / 943 742 225**



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**Etxebizitza bat daukat, baina erdia bakarrik dago nire jabetzan, beste zatia 12 urteko alabari dagokiolako, bere aita hil zenez geroztik. Duela bost urte, herentziaren esleipena egin zenean, etxea saltzeko baimen judiziala eskatu nuen. Baimena eman zidaten, baina azkenean ez genuen etxea saldu, azken orduan arazo batzuk sortu zitzaizkigulako. Orain, etxea saltzekotan nago eta jakin nahiko nuke bere garaian eman zidaten baimen hark balioa duen oraindik eta zeintzuk dokumentu aurkeztu behar ditudan etxea saltzeko.**

Orduan eman zizuten baimen judizial hark balioa du, beti ere baimen hori eskatu zenuen garaian eman ziren baldintzak (prezioa, eroslea, salerosketaren ezaugarriak...) bere horretan mantentzen badira.

**AHOLKUA: Baimen judizial horrez gain, zure alaba adingabearen guraso-agintea duzula egiaztatu beharko duzu, etxebizitza hori saldu ahal izateko. Hori egiaztatzeko, Familia Liburua edo alabaren jaiotza ziurtagiria eta haren aitaren heriotza ziurtagiria ere aurkeztu beharko dituzu. Erregistro zibilean eskuratuko dituzu azkeneko biak.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






• Zure lau lehengusuen partez, zorionak, **Ainhize**, 7 urte bete dituzulako.



• Zorionak, **Olaiz**, bihar 7 urte beteko dituzulako. Familia osoaren partez, muxu potolo bat.



• Zorionak, **Mikel**, bihar 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, etxekoaren partez.



• Zorionak **etxeko sorginari** bere hirugarren urtebetetzean. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Gari**! 7 urte handi. Oso ondo pasatu genuen zure egunean. Patxo handi bat, familiako guztion partez.



• Zorionak, **Lander**, igandean urtetxo bat. Ondo pasa eta muxu potolo-potolo bat Ikerrin eta familiako guztion partez.




• Zorionak, **Jon**! Astelehenean 5 urte! Patxo handi bat, etxekoaren partez.




• Zorionak, **Oihan**, 8 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, etxekoaren partez.



• Zorionak, **Adur eta Ane**, 6 urte bete dituzuelako, zuen familien partez.



• Zorionak, **bikote**, bihar zuen ezkontza eguna ospatuko dugu! Orain arte bezain zoriontsu izaten jarraitzea opa dizuegu. Osasuna eta maitasuna denontzat! Zuen lagunak.



• Zorionak, **bikote**! Hantxe egongo gara zuen ondoan behar bezala ospatzeko. Gora bihotzak! Altza kopak! Elgoibarko eta Azkoitiko familiak.  
• Zorionak, **Urko eta Mirari**. Ondo pasa zuen egunean, koadrilakoen partez.



• Zorionak, **potolita!** Muxu handi bat. Familiakoen partez, eta batez ere Lierren partez.



• Zorionak, **Narrea eta Aritz**, atzo zuen 10. urtebetetzea izan zelako. Espero dugu egun polita izango zenutela eta asko disfrutatuko zenutela. Zuen familien partez.



• Zorionak, **Sabin eta Teo**, 6 eta 3 urte bete dituzuelako! Bihotzez, etxekoaren partez.



• Zorionak, **bikote**, bihar egun handia izango da guztiontzat! Seguru oso ondo pasatuko dugula! Besarkada handi bana eta muxu potolo bana, zuen koadrien partez.

## ZORIONAK



Zorionak, **Ikus eta Txarriduna**! Guretzat txapeldun zarete! Sire Ketake Bui!



Ekainaren 23an Arcachoneko ur parkera goaz. Izenematea, Gaztelekuan.

Ostiral honetan afari merienda LH3-LH6ko umeentzat. 17:30etik 20:00etara.



## 29 barixakua

### **Aisialdia** 17:30 'Kiribil'

Elgoibarko Izarrako aisialdi taldeak antolatuta, Kalegoen plazan.

### **Erakusketa** 19:30 Pintura

Gemma Monrealen eskolako umeen lanak jarriko dituzte Kultur Etxean ekainaren 5era arte.

### **Kontzertua** 22:30 A2an

Alfonso Guillo eta Gabi Agirregomezkorta. Txarridunan.

## 30 zapatua

### **Kirola** 10:00 Pilota Eguna

Mendaroko frontoian.

### **Kirola** 18:00 Giza probak

Mendaroko Garagartzako probalekuan. Gipuzkoako txapelketako saioa.

## 31 domeka

### **Musika** 17:00 'Txikimusika'

Mendaroko Munlet taldeak eskainiko du kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

## 1 astelehena

### **Bisita kulturala** 17:30 Elgoibarko ondarea

Haizeak antolatuta, Pello Arrietarekin.

## 2 martitzena

### **Tailerra** 18:00 Literatura

Haizeak antolatuta, *Otra vuelta de tuerca* liburua landuko dute, Liburutegian.

## 4 eguna

### **Bilera irekia** 19:00 Sanbartolome jaiak

Maalako Jai Batzordeak deituta, jaiak prestatzeko bilera. Kultur Etxeko sotoan.

## TRINITATE JAIK (Elgoibar)

### 30 ZAPATUA

#### 10:00 Urpekaritza bataioak

Urbizik antolatuta, kiroldegian.

#### 10:00 Azoka berezia

Elgoibarko baserrietan hezitako abereen erakusketa, Lekuederren. Era berean, Elgoibarko baserrietako produktuak egongo dira salgai.

#### 10:30 Kalejira

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako trikitilari eta txistulariekin.

#### 11:00 Kalitateko produktuen dastatzea

Lumagorri oilaskoak eta aire librean hazitako txerrien sahieski eta hirugiharra. Elgoibarko baserrietako sagardoa ere bai. Lekuederren.

#### 13:00 Trinitate Saria

Emakumezkoen trontza lehiaketa. Kalegoen plazan. Segidan, Idoia Etxeberria

harri-jasotzailearen erakustaldia.

#### 14:30 Baserriarren bazkaria

Lekuederren.

#### 18:00 Musika eta dantza

eskolako jaialdia

Kalegoen plazan.

#### 00:00 Nagusien danborrada

Udal Musika Bandak

lagunduta, Kalegoen plazan.

### 31 DOMEKA

#### 9:00 Diana

Udal txistulari taldearekin.

#### 10:00 Artisau azoka

Lekuederren.

#### 11:00 Meza Nagusia

Parrokiako abesbatzaren laguntzaz, San Bartolome parrokiaren.

#### 12:00 Haurren danborrada

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta.

#### 17:30 Erraldoi eta

buruhandiak

Zezenzikleta eta

dultzaineroekin.

## BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 -24:00	24:00 - 09:00
29 Fernandez 30 Oruesagasti 31 Oruesagasti 1 Garitaonandia 2 Barrenetxea 3 Ibañez 4 Oruesagasti 5 Yudego	Astelehenetik igandera  Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Oruesagasti** Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

## TRINITATE JAIK (Mendaro)

### 29 BARIXAKUA

19:30 Kalejira. Bizi Poza txarangarekin.

### 30 ZAPATUA

#### 17:00 Zuhaitza jartzea.

Kanpai errepika eta txapliguak.

### 31 DOMEKA

10:00 Kalejira. Mendaroko txistulariekin.

#### 11:30 Meza Nagusia.

Elizako abesbatza eta Ameikutzen partaidetzarekin.

#### Ondoren, Txistulariak eta

Josune eta Maite trikitilariak.

#### 12:30 Herri Kirolak

**Aizkoran:** Angel Arrospide eta Fausto Mugertza.

**Trontzan eta txingetan:** Uxue Ansorregi eta Irati Astondoa.

### 1 ASTELEHENA

#### 11:00 Meza Santua.

Trinidadeko baselizan.

#### 12:00 Ikastolako haurren

bertso saioa.

**Ondoren, hamaiketako.** Laja eta Larrañaga trikitilariakin.

14:30 Herri bazkaria. Toki Alai jatetxean.

#### 20:30 Herri afaria.

Aizpe elkartean. Laja eta Larrañaga trikitilariakin eta bertsolariakin.

**ZINEA**  
(HERRIKO ANTZOKIAN)

«The humbling»  
29, barixakua: 21:30  
30, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)  
31, domeka: 19:00  
1, astelehena: 21:30



iturgintza

Bainugelak  
Gasa  
Klimatizazioa  
Energia berriztagarriak  
Gremioen koordinazioa  
Etxebizitzaren diseinua

## Galdara errebisioak egiten ditugu

Pedro Muguruza Etorbidea 11- behea  
20870 ELGOIBAR Gipuzkoa - Tel.: 943 254 522 - Faxa: 943 254 523  
ongil@ongielgoibar.com - www.ongielgoibar.com

**MULTIÓPTICAS Uzuri** San Frantzisko, 21 Ostakaza 7  
ELGOIBAR DEBA  
Tel.: 943 740 359 Tel: 943 192 192

### AUDIOLOGIA ZERBITZUAK

- Audifono digitalak
- Konponketa eta mantenua
- Entzumen laguntzak
  - Tb entzuteko sistemak
  - Bibraziozko erlojuak
  - Telefonoak
- Akufenoen terapia
- Neurriaren egindako Tapoiak
  - Zararentzat
  - Igangetarako
- Moldeak
- Pilak
- Estudio Audiologikoak
  - Audiometriak
  - Entzumen sistema
  - Belarri barruko mukiak



## SAHATZU HARATEGIA

Santa Ana, 5  
T943 742 048

**JON ULAZIA**  
"SAHATZU"



# K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19, behea - Elgoibar  
Informazioa eskatzeko, deitu:  
943 743 044 edo 653 825 606

## UDAKO IKASTARROAK

Ekainaren 29tik uztailaren 24ra

- ♦ Haur, gazte eta helduentzako eskolak, orokorrean.
- ♦ Cambridge azterketen prestakuntza.



Cambridge Unibertsitateko azterketarako batzordeko kidea ES438

## 2015-2016 ikasturterako matrikulazio epea zabalik

- ♦ Haurrak eta gazteak, ingelesa, frantsesa eta alemana.
- ♦ Cambridge azterketen prestakuntzarako talde bereziak.
- ♦ Laguntza eskolak: Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa
- ♦ Helduentzako klase orokorrak



# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@biena.eus](mailto:info@biena.eus)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabillioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabillioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalaieak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

San Roke 10-A behea B  
☎ 647 463 436

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tailerra  
San Antolín, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

